

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Erretxin gozoak

BOTEREAK MILAKA URTETAN eraman izan du intsentsu usaina. Sendagai ere izan da haren esentzia. Txinan, Somalian, Indian, Ekialde Ertainean eta Afrika iparraldean... nonahi. *Boswellia* generokoak dira intsentsuaren zuhaitzak, *Boswellia sacra*, *B. frereana*, *B. serrata*, *B. papyrifera*...

Zuhaitzaren erretxinetik sortzen da intsentsua. Enborra zauritu eta jariatzen duen erretxina argitaratu ahala, lehortu eta uhertzen du aireak, kokorlaru hauskorrak borobilduz. Erlijio gehienen parafernaliak behar izan duen usaina, kokor hauek, besterik gabe, sutan berotu eta urtuz zabaldu izan da.

Intsentsu sonatuena Somalia iparraldeko Maydia da. *Boswellia frereana* espezieko zuhaitzaren negarra. Sortzen den erretxin ia dena Mekara bidean jartzen da erromes, harako erromes musulmanen eskea asetzeko. Maydia baino dezentez garestiagoak dira

Boswellia sacra zuhaitzari kentzen zaizkion intsentsuak. Oman eta Yemenen egiten dira. Gardenenak, kalitate oneneko Hojari eta Silver deiturikoak, Omango Qaboos bin Said al Said sultanak eskuratzen ditu. Horien aldean merkeagoa eta itxuraz pattalagoa da Indiakoa, *Boswellia serrata*.

Intsentsuaren aldean erruz ekoizten dute Indian kurkuma, *Curcuma longa*. Haren sustrai lodikoteak bildu eta ehota sortutako hauts gorria erabiltzen da. Jantziak tindatzeko eta jateko, nagusiki. Indiaz dugun irudiko kolorea, arropatako gorri, hori, laranja hori da kurkumarena. Espezia ohikoena da, curryaren osagai.

Biak, kurkuma eta intsentsua, osasunerako oso onak direla diote. Asma, minbizia... gero eta froga gehiago biltzen ari dira osabideetan. Historia luzea, etorkizun luzeagoa.



JAKOBA ERREKONDO

Apopilo

Zorri beltzaren arrautzek basaerramuan (*Euonymus europaeus*) igaro dute negua. Udaberriarekin sortzen dira zorriak. Ostatu hartzeko ez dute edozein puntta berri nahi. Izerdi berria bor-bor, gozo duena. Jeneralean lehenengo belaunaldia babatan (*Vicia faba*) bizitzen da. Izerdialdia aprobetxatu behar dute eta belaunaldi pare bat osatu, gero beste landareetara sakabanatzeko. Aurten, ordea, neguan baratzako lurra maneatzeko ez zen giro, eta baba eskas. Argazkiko hauek pitosporo (*Pittosporum tobira*) batean daude, mantu osoan apopilo. Azpiak inurriek egiten dizkiete. Zorri-kaka gozoa omen.

Esaera

“Ilargi eta laino,
sorginentzat giro”

57,9

Etna sumendiaren magalean, Carpineto basoan, Sizilian, Kataniako Sant'Alfio herrian bizi da “Ehun Behorren Gaztainondoa”, *Castanea sativa*. Zenbait botanikarik 4.000 urte dituela dio. Italiako zuhaitz handiena, Europako zaharrena litzateke. 1965ean desjabetu eta Monumentu izendatu zuten. XVII. mendean Aragoiko Juana erreginak ekaitz batean haren azpian hartu omen zuen abaro, erreginak eta bere segizio-ko ehun zaldun, behor eta abarrek. Orduan, dagoeneko, hamabost metroko diametroko enborra zuen. Gaur egun 57,9 metroko gerria omen du.



Landareei buruzko galderaren bat egin nahi badiguzu, bidali landareak@argia.com helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.